

Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila**



Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.
<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Nefrologiako Zerbitzua eta Prestakuntza Espezializatuko Unitatea. Gurutzetako Unibertsitate

Ospitalea. Barakaldo. Bizkaia. [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



NEFROLOGIA

Nefrologia Zerbitzuak prestakuntza integrala eskaintzen du gaixo nefrologikoari arreta emateko, alderdi guztiak kontuan harturik.

Patologia nefrologikoaren diagnostikoa, tratamendua eta jarraipena egiten da, paziente ambulatorioetan nahiz ospitaleratuetan.

Halaber, Giltzurruneko gaixotasun kronikoaren jarraipena eta tratamendu integrala egiten dugu, giltzurrunaren funtzioa ordezkatzeko teknika guztien bidez, bai hemodialisian, bai dialisi peritonealean eta bai giltzurruneko transplantean ere; transplanteak, hildako nahiz bizidun emaitzenak izan.

Ospitaleko beste zerbitzu batzuetan dauden pazienteen asistentzia nefrologikoa ere egiten da.

Era berean, gorputzez kanpoko arazketa-teknika iraunkorraren asistentzia paziente kritikoetan.

Jarraian zehaztuko dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Nor gara



Zerbitziburua
F. Javier Gainza dk.



Tutorea:
Eva María Álvarez dk.



Tutorea:
José Manuel Urbizu dk.



Tutore laguntzailea
Begoña Bralo k.

Zerbitzua 1970. urtean sortu zen, eta Nefrologia Espezialitateko Batzorde Nazionalak diseinaturiko espezialitate-programa osoaren prestakuntza eskaintzen du. 1972. urtetik, espezialistak prestatzeko akreditazioa du, eta urtero bi prestakuntza-plaza hartzeko ahalmena.

Sortu zenetik, zerbitzua Ricardo García Damborenea, José Luis de Sancho, Ildefonso Lampreabe Gaztelu eta Francisco Javier Gainza de los Ríos doktoreek zuzendu dute. Hona hemen zerbitzuaren garapenean izandako gertaerarik nabarmenenak:

- Hemodialisia eta dialisi peritoneala ezarri ziren giltzurruneko gaixotasun kronikoaren ordezkotzat tratamenduaren teknika gisa; bi tratamenduen modalitate teknikoen mailakako ezarpena.
 - 1979. urtean, hildako emaileen giltzurruneko transplantearen programa hasi zen, Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentzia-zentro gisa lehendabizi, eta Errioxako Autonomia Erkidegoko erreferentzia-zentro gisa ere zenbait urtez.
 - Gorputzez kanpoko arazketaren teknika iraunkorrak ezartzen hasi ziren ospitaleko unitate kritikoetako pazienteetan.
 - 2006an, bizidun emaileen giltzurruneko transplantearen programa hasi zen, eta, azken urte hauetan, hainbat modalitate sartu dira, besteak beste: transplante gurutzatua eta desentikortze bidezko transplantea odol-talde bateraezinekin.



- 2011n, giltzurruneko transplantea egiten hasi ziren esfortzu terapeutikoaren murrizketa duten emaleekin (Maastricht III).
- Alderantziko osmosi hirukoitza eta bero bidezko desinfekzioa duten ur-plantak instalatzea, ur ultra garbia ekoizteko, lineako hemodiafiltrazio-tekniketarako eta hemodialisirako, 2016an
- Ikerketa aplikatuko proiektuak industriarekin kolaboratuta.
- Zentro anitzetako proiektuak beste zentro batzuekin kolaboratuta.
- Zentro anitzetako proiektuak, gure zerbitzuak zuzenduak.

Hau da lantaldea:

- Zerbitzuburu bat
- Bi atalburu
- 12-14 mediku adjuntu
- 6 BAME

Zerbitzuak atal edo unitate asistentzial hauek ditu:

- ◆ Akutuen (hiru ohe eta lau hemodialisi-toki) eta berehalako transplante osteko aldea (sei ohe), eta box bat peritoneo-ordezkapenatarako/funtzio anitzetarako
- ◆ Urologia Zerbitzuarekin partekaturiko ospitalizazio-aldea (40 ohe).
- ◆ Kanpo-kontsulten aldea (6-7 agenda egunero) Nefrologia klinikoko eta giltzurruneko transplanteko kontsultak hartzen ditu.
- ◆ Hemodialisiko eta dialisi peritonealeko unitatea, GGKA (giltzurruneko gaixotasun kroniko aurreratua) kontsultekin batera.
- ◆ Bilera klinikoetarako gela.

Urteroko jarduera eskuragarri dago hemen:

[EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESiko URTEKO MEMORIA](#)



Non gaude

Nefrologiako gure zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean dago:

Gurutzetako plaza z/g. Barakaldo 48903.

Barakaldo, Bizkaia

[Ikus Ospitalea Google Mapsen](#)

Zerbitzuko Idazkaritza

7. solairuan dago.

Hau da administrazio-idazkaria:

Marta Rivas

Harremanetarako telefonoa: +34-94.600.6360

Posta elektronikoa:

Secretaria.NefrologiaCruces@osakidetza.eus





Prestakuntza-eskaintza

Gure antolakuntzari eta asistentzia-jarduera handiari esker, espezialitateko alderdi nagusi guztietan eskain eta berma dezakegu espezialisten prestakuntza:

- a. Nefrologia klinikoa. Patologia nefrologiko guztiak hartzen ditu, bai glomerularra, bai interstiziala, bai baskularra.
- b. Arteria-hipertentsioa.(bigarren mailako kausetan eta HTA errefraktarioan enfasia)
- c. Giltzurrun-gutxiegitasun akutua, ospitalez kanpoko nahiz ospitale barrukoa.
- d. Trastorno hidroeletrikoak.
- e. Giltzurruneko gaixotasun kronikoa, eboluzio-aldi guztietan.
- f. GGKA-ren (giltzurruneko gaixotasun kroniko aurreratua) tratamendu kontserbatzailea nahiz ordekatzailea, hemodialisiaren zein dialisi peritonealaren tekniken bidez.
- g. Gorputzez kanpoko arazketaren teknika iraunkorrak larri dauden pazienteetan (gaur egun laguntzarako bakarrik).
- h. Giltzurruneko biopsi ekogidatuak.
- i. Hemodialisirako sarbide baskular zentralen ezarpena.(gaur egun iragankorrak bakarrik).
- j. Gorputzez kanpoko arazketaren beste teknika batzuk, hala nola plasmaferesia.eta A, B edo AB odol-taldeentzako berariazko zutabeen bidezko glikoatsortzioa.

Horrez gain, dedikazio berezia daukagu patologia zein prozedura konplexu hauetan:

- a. Hildako emaileen giltzurruneko transplantea
- b. Bizidun emaileen giltzurruneko transplantea
- c. Bizidun emaileen giltzurruneko transplantea egoera berezietan.
 - Odol-talde bateraezina, desentikortze-tekniken bidez
 - Transplante gurutzatua

Beste zentro batzuetako profesionalei **prestakuntza-egonaldiak** eskaintzen dizkiegu arlo hauetan:

- Giltzurrun-transplantea

Informazio gehiagorako, hemen dago eskuragarri gure zerbitzu-zerrenda:

[Ospitalea > Zerbitzuen katalogoa > NEFROLOGIA.](#)



Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusi irakaskuntza-jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarrizko prestakuntza bateratua osatzeko. Ikastaro horietako gehienak ezinbestekoak dira azken titulua lortzeko.

Ospitaleak **Saio Orokorrak** egiten ditu hilero asteazken batean edo bitan, 08:30ean, areto nagusian. Saio horiek garrantzi handikoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea zeinahi dela ere. Izan ere, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasteaz gain, ospitalearen, zerbitzuen eta unitateen funtzionamenduaren eta horien arteko loturen berri jasotzen da, eta baita batzordeek duten jarduera garrantzitsuaren berri ere.



Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)

1. urtea:

- Nefrologia: 3 hilabete
- Endokrinologia: 2 hilabete
- Kardiologia: 2 hilabete
- Barne-medikuntza: 2 hilabete
- Gaixotasun infekziosoak: 2 hilabete

2. urtea:

- Larrialdietako Zerbitzua: 2 hilabete
- Urologia Zerbitzua: 2 hilabete
- Medikuntza Intentsiboko Zerbitzua: 2 hilabete
- Nefrologia Zerbitzua, dialisi unitatea (hemodialisia, dialisi peritoneala, GGKA): 6 hilabete

3. urtea:

- Nefrologia Zerbitzua, ospitalizazioko solairua: 6 hilabete
- Nefrologia Zerbitzua, kanpo-kontsultak: 6 hilabete

4. urtea:

- Nefrologia Zerbitzua, akutuen eta berehalako transplante osteko unitatea: 6 hilabete
- Nefrologia Zerbitzua, giltzurruneko transplanterako kontsulta: 3 hilabete
- Nefrologia Zerbitzua, kontsultartekoak: hilabete 1
- Egoiliarak kanpo-prestakuntza jaso dezake estatuko zein atzerriko zentroetan. Zentroaren aukera mediku egoiliarak bere prestakuntza osatzeko dituen lehentasunen arabera izango da.

Espainiako Nefrologia Elkarteak ematen ditu egonaldi-urte bakoitzerako espezialitateko prestakuntza-ikastaro espezifikoak.

Atentzio iraunkorreko guardiak eginda osatzen da prestakuntza; hilean bost guardia.

Lehenengo urtean, hiru guardia egingo dira Larrialdietako Zerbitzuan, eta bi guardia Nefrologia Zerbitzuan.



Bigarren urtean, guardia guztiak Nefrologia Zerbitzuan egingo dira, medikuntza intentsiboko errotazio-aldian izan ezik; errotazio-aldi horretan, hilean hiru guardia egingo dira.

Gainerako urteetan, guardia guztiak Nefrologia Zerbitzuan egingo dira.

Gure zerbitzuko guardia guztietan mediku adjuntu bat egoten da, zeinak jarduera guztiak gainbegiratzen baititu. Mediku egoiliarrek jarduera horietan duen ardura-maila handituz joango da prestakuntza-prozesuak aurrera egin ahala.



Ikerkuntza

Ospitaleak [BioCruces Ikerkuntza Institutuaren](#) sostengua du ikerketarako.

Hauek dira zerbitzuak zuzentzen dituen edo kolaboratzen ari den ikerketa-lerroak:

1. GAUR EGUN ESPAINIAN GILTZURRUNEKO TRANSPLANTEREN BAT DUTEN PAZIENTEEN IMMUNITATE HUMORALA ETA HORREK INJERTOAREN IRAUPENEAN ETA FUNTZIONALITASUNEAN DUEN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERKETA.
2. RETTO - PLATFORM azterketa pilotua (*Renal Transplant Tacrolimus Optimization Platform*). Aurrera begirako eta behaketa bidezko azterketa.
3. Behaketa bidezko, aurrera begirako, zentro anitzetako eta kontrolaturiko azterketa, bizidun emaielen giltzurruneko transplantearen hartzaileen alterazio kognitibo, emozional eta konduktuala ebaluatzeko.
SUSTATZAILEA: *Societat Catalana Trasplantament*.
4. 2010eko ABUZTUTIK 2011ko ABENDURA BITARTEAN TRANSPLANTATURIKO PAZIENTEEN DATU-BASEA, BK POLIOMA ETA CMV BARNE HARTUTA, ETA BAITA DATU KLINIKO ETA ANALITIKO GUZTIAK ERE.
SATOT-EK SUSTATUA.
5. TRANSREVIH
GREAT-ean PARTE HARTZEN DUTEN OSPITALE GUZTIETAN TRANSPLANTATZEN DIREN GIB-dun PAZIENTEEN DATU-BASEA (22 OSPITALE TRANSPLANTATZAILE). AZTERKETA KONPARATIBOAK EGIN AHAL IZATEKO, GIB BAKOITZEKO BI KONTROL EGITEN DIRA.

Farmazia-industriarekin ere lan egiten du Saiakuntza Klinikoak egiten.

Egoiliarra progresiboki hasten da ikerketa-lanetan.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio zehatzagoa eskuragarri dago hemen:

[MEMORIA ZIENTIFIKOA](#)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa da ikasketaren motorra, eta, hala, ikasketa errazteko bidean, alde sendoak eta ahulak atzemateko balio du, eta hobetzeko planak ezartzeko. **“Prestakuntzaren ebaluazioa”** deitutako ebaluazio-mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat lor dezakegu iturri askotatik eta hainbat ikuspegitatik (gainbegiraleen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio hori eskuetan duela, **Urteko Ebaluazioaren Batzordeak**, aho batez, txosten bat egiten du, eta hor agertuko dira egoiliarraren alde sendoak, eta baita non hobetu behar duen ere halakorik atzemanaz gero. Gaitasunetan oinarritutako txosten horrek eta derrigorrean egin beharreko ikastaroen ziurtagiriek osatzen dute **“Egoiliarraren Urteko Espedientea”**. Tutorea arduratzen da prestakuntza-prozesu guztia kudeatzeaz, eta, halaber, berak emango dio Urteko Espedientea.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Nefrologia Zerbitzuko BAMEek lortu beharreko gaitasunak bat datoz Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak definitu dituen XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-arloekin:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientearen zainketa eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa.
5. Osasun-sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (osasunaren sustatzailea eta baliabideen kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Espezialitate honi dagozkion asistentziako, irakaskuntzako eta ikerketako gaitasunak [nefrologiako espezialitatearen programa ofizialean](#) jasotzen dira.



Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio-sistema orokorra¹.

[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak zuzentzen dute ebaluazio-sistema. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatuz joan den **“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”** izeneko proiektuaren parte da. **Ebaluazio-metodoak** hauek dira:

- a. Errotazio bakoitzaren gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredua)
- b. Aldian behingo elkarrizketak tutorearekin (gutxienez urtean bi)
- c. Autoebaluazioa
- d. Urteko memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da). Bi alderdi hartzen ditu: lortutako gaitasunen gaineko hausnarketa, batetik, eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin lotutako beste jarduera batzuen kuantifikazioa, bestetik.
- e. Gaitasunetan oinarritutako tutorearen urteko txostena
- f. Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- g. Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- h. Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa jasotako prestakuntzaren gainean.

1. Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen die Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei.
2. Bi urtean behin, otsail eta martxo artean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hori duela 20 urtetik egiten da. Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.



Nefrologia ©